



Usurbilgo Udala



## 2014KO URRIAREN 14EAN EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.  
Josu Portu Alzaga J.  
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.  
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.  
Enara Arbizu Irurtia A.  
Iñaki Ugarte Aguirre J.  
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.  
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.  
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.  
Miren Josune Urquia Carrera A.  
Josune Urkola Larrarte A.  
Ricardo Crespo Rubio J.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin A.

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera A.

Arratsaldeko 18:10etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko urriaren 14ean, arratsaldeko 18:10etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

### **1.- 2015EKO ZERGA ORDENANTZAK BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA.**

Alaitz Aizpuruak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu.

Adierazi du orokorrean aurreko zerga ordenantzaren igoerarik ez dela proposatzen, bere horretan mantentzea proposatzen dela salbuespen batzuekin.

Azkeneko urteetan abuztutik abuzturako Gipuzkoako KPIa aplikatu dela esan du eta aurtengo negatiboa izan denez, zergak bere horretan uztea proposatzen dute.



Usurbilgo Udala



Salbuespenak kiroldegian Buruntzaldea mailan onartzen diren eta amankomunean jartzen diren tasak direla zehaztu du. Hauetan maiatzetik maiatzerako EAEko eta Nafarroako KPIa aplikatzen dela esan du, eta aurtengo kasuan 0,3ko igoera izan duela adierazi du.

Gainontzeko aldaketak, zuzenketak edo moldaketak direla azpimarratu du eta jarraian hauek zeintzuk diren azaldu du, diktamenean jasota dauden moduan.

Ricardo Crespok esan du kirol instalazioetako prezioetan ez dela agertzen Harane futbol zelaia alokatzearen prezioa, ea hori jarriko den galdetu du.

Iñaki Ugartek erantzun dio hauek Buruntzaldeako irizpideen arabera onartutakoak direla, besteak ez daudela esan dio.

Bestalde, Ricardo Crespok esan du Kultur jardueretan jartzen duela “Beste jarduera batzuk: kostuaren eta interesaren arabera”, kostua neurgarria dela dio baina interesa nola neur daitekeen galdetu du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio gehienetan kontrakoa gertatuko dela, adibide moduan esan du Udalak antzerki emanaldi bat antolatzen bada eta 3.000 euro kostatzen bada eta 150 ikus-entzule sartzen badira Sutegin, ez dutela kostuaren arabera kobratuko baizik eta gutxiago kobratuko da eta udalak zati bat asumituko du, interesa hor dagoela esan du.

Ricardo Crespok erantzun dio jarrita dagoen moduan oso malgua geratzen dela, formula bat balego hobea izango litzatekeela.

Alaitz Aizpuruak esan du inoiz ez dela kobratuko kostuaren gaineratik. Zehaztu du modu malgu batean jaso nahi izan dela, zeren formula bat jarriko balitz kasu batzuetan agian astakeria bat kobratzera aterako bailitzateke.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“2014ko urriaren 6an ospatutako Ogasun Batzordean aldaketa hauek Udaltzarrerara bideratzea erabaki zen:

**1.- ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA.**



Usurbilgo Udala



**5. artikulua, d): Etxebizitza hutsak alokairuan uzteagatik hiri OHZ zergaren kuota osoaren hobaria.**

Esaten du:

“kuota osoaren %50erainoko hobaria”

Esan beharko luke:

“kuota osoaren %50eko hobaria”.

**7. artikulua, f): Ez ohiko etxebizitzaren erreklama.**

Ezabatu: “Erreklama honen helburuen irizpideekin bat datorren kasuetan, erreklamaaren salbuespena onartzea ala ez erabakiko da”.

**3.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.**

**6. artikulua, c), azken paragrafoa, erdarako testuan soilik (euskaraz ondo dago):**

Esaten du:

“Para poder gozar de la citada bonificación en los supuestos previstos en las letras A), B) y C) anteriores serán asimismo requisitos imprescindibles.”

Esan beharko luke:

“Para poder gozar de la citada bonificación en los supuestos previstos en las letras A), B) y C) anteriores, será preciso que así lo solicite el sujeto pasivo, adjuntando la ficha técnica del nuevo vehículo”.

**6. artikulua, 4):**

Ezabatu: “Udal edo herrialde mailarako Garraio Publikorako Txartel bisatua duten ibilgailuek %20ko hobaria izango dute aurrerantzean. Hobari berdina izango dute zerbitzu propiorako txartel bisatua duten ibilgailuek ere”.

**6.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

**D) Dokumentuen luzatze zerbitzua.**

TARIFAK

€

Zakurren ordenantzaren aurre-ikusitako espedienteak tramitatzea	72
Udal Bulegoetan luzatutako fotokopiak:	
DIN A4 neurria, zuri-beltzean, bakoitza:	0,2



Usurbilgo Udala



DIN A4 neurria, koloretan, bakoitza:	0,3
DIN A3 neurria, zuri-beltzean, bakoitza:	0,3
DIN A3 neurria, koloretan, bakoitza:	0,4
Udal planoen kopiagatik:	
Kopiak euskarri digitalean (CD/DVD bakoitzeko)	38
Gainontzeko zerbitzuak kopisteriaren kostuaren arabera	

### **G.- JARDUERA LIZENTZIAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAREN EDO INSTALAZIOAREN FUNZIONAMENDUAREN EGIAZTATZE-IKUSKARITZA EGITEAGATIK.**

Tarifak eta salbuespenen artean erantsi:

"Titularitate aldaketetan, jarduerak jarraitzen duenean eta beste aldaketarik ez dagoenean, ez da tasa kitatuko, baldin eta jardueraren etena sei hilabete baino luzeagoa ez baldin bada. Epea handiagoa balitz tasa aplikatuko da.

Lokaletako obregatik egindako lekualdaketak eta derrigorrezko bahera botatzeak eragindakoak salbuetsita egongo dira.

Hilabeteko epean lokal komertzial bateko behin-behineko irekiaren baimena: 50 €'.

Sortu:

### **G2. Hirigintza espedienteak.**

a) Hirigintza kontsultak-----34

b) Partikularrek eskatu eta Udalak egindako Arau Subsidiarioen aldaketak, planoen aldaketak berekin badituzte, sortzen dituzten gastuen %80 partikularren bizkar joango dira. Aldaketa ez balitz onartuko udal arrazoiengatik, gastu guztiak Udalaren bizkar izango dira.

### **J. Aretoen erabilera tarifak.**

Zutabeetako deitura aldatu: "euro" esan beharrean, "ordua" esan beharko luke.

€/ordua €/eguna

### **F. Landabideen erabilpena.**



Usurbilgo Udala



3. paragrafoan:

Esaten du:

“Mendi bideak baserrien hobetzeko, berriztatzeko edo obretarako materiala garraiatzeko erabiltzeagatik, dagokien hastapen kuoten %90raino hobaritu daitezke”.

Esan beharko luke:

“Mendi bideak baserrien hobetzeko, berriztatzeko edo obretarako materiala garraiatzeko erabiltzeagatik, dagokien hastapen kuoten %90eko hobaria aplikatuko da”.

## **7.- UDAL JABETZA ERABILTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

### **I. Udal baratzen erabilera.**

Bukaeran erantsi:

“Altak eta bajak: Emakidaren esleipena edo baja, urtean zehar gauzatzen direnean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, alta edo baja gauzatu den hilabetea barne”.

## **8.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL IHARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

### **A. Etxez etxeko zerbitzua prestatzeagatik**

2.-Arautegi berria:

Mendekotasuna duten erabiltzaileei eta autonomoak direnei tarifa berberak aplikatuko zaizkie. 2015. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten duen orduko prezioa aplikatuko da, lanegunetan zein jaiegunetan.

### **B.-Udal Kirol instalazioetako zerbitzuak**

#### **OIARDO UDAL KIROLDEGIA**

##### **SARRERAK**

18 urtez gorakoa	6,00 €
18 urtez beherakoa	3,70 €

##### **ABONOAK (I-XII)**

Familiarra	240 €
18 urtez gorakoa	158 €
18 urtez beherakoa, jub. edo 25 urtez beherako ikaslea	99 €
Pentsionista	99 €



Usurbilgo Udala



<b>EPEA</b>	<b>FAMILIARRA</b>	<b>&gt; 18 urte</b>	<b>&lt; 18 urte, jub. eta &lt; 25 urteko ikasleak</b>
urt. – abe., ots. - abe.	240,00 €	158,00 €	99,00 €
mar. - abe.	224,00 €	147,00 €	92,00 €
api. – abe.	204,00 €	134,00 €	84,00 €
mai. – abe.	184,00 €	121,00 €	76,00 €
eka. – abe.	164,00 €	108,00 €	68,00 €
urt. – eka., uzt.- abe.	156,00 €	102,00 €	64,00 €
ots. – eka., abu. – abe.	136,00 €	89,00 €	56,00 €
mar. – eka., ira. – abe.	116,00 €	76,00 €	48,00 €
api. – eka., urr. - abe.	96,00 €	63,00 €	40,00 €
mai. – eka., aza. - abe.	76,00 €	50,00 €	31,00 €
eka. – eka., abe. – abe. edo 30 egun	56,00 €	37,00 €	23,00 €

#### ERRESERBA ETA ZERBITZUAK

Squash ( 60´)	5,20 €
Sauna	3,70 €
Giltza puskatzea, galtzea	5,20 €
Karneta puskatzea, galtzea	3,50€

#### UDALAREN BESTE KIROL INSTALAZIOAK

##### **UDAL PILOTALEKUAK**

Erreserba (60´)	13,30 €
argiarentzako fitxa	3,90 €

#### D.-Eguneko Zentroaren zerbitzua

1.- Mendekotasuna duten erabiltzaileak:

Baldintza ekonomikoak urtero eguneratuko dira 2002ko abenduaren 30eko 801/02 Foru Aginduaren 4.2 artikulua aurreikusitakoari jarraituz.

#### H.- Kultur jarduerak

- Haurrentzako zine emanaldiak..... 3 €
- Beste jarduera batzuk: kostuaren eta interesaren arabera.

#### 9.- ZERGA KUDEAKETA ETA BILKETAREN ORDENANTZA NAGUSIA.

27. artikulua: Egutegi fiskala.



Usurbilgo Udala



## 2015 URTEKO EGUTEGI FISKALA

Egutegi fiskala Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udal honetako Iragarkien Oholean kaleratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketa Araudia onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikulua aipatzen duen kobrantzarako iragarki betekizuna bete ahal izateko.

### ZERGA KONTZEPTUA

### ORDAIN EPEA

- Emakida administratiboak (atxega jauregia, udal baratzak...): Urtarrilaren 2tik 31ra.
  - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa – aurreko urteko 4. hiruhilekoa: Urtarrilaren 2tik 31ra.
  - Ura ,estolderia eta hondakinak – aurreko urteko 4. hiruhilekoa: Otsailak 1etik martxoak 16ra.
  - Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga: Martxoak 2tik apirilak 15era.
  - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 1. hiruhilekoa: Apirilak 1etik apirilak 30era.
  - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 1. hiruhilekoa: Maiatzak 1etik ekainak 16ra.
  - Ondasun higiezinaren gaineko zerga: Maiatzak 15etik uztailak 1era.
  - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 2. hiruhilekoa: Uztailak 1etik abuztuak 1era
  - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 2. hiruhilekoa: Abuztuak 1etik irailak 15era.
  - Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa): Irailak 1etik urriak 1era .
  - Ekonomi jarduera gaineko zerga: Urriak 1etik azaroak 10era.
  - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 3. hiruhilekoa: Urriak 1etik urriak 31ra.
  - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 3. hiruhilekoa: Azaroak 2tik abenduak 15era.
  - Bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutxazain automatikoak...): Azaroaren 2tik abenduak 1era.
- **Helbideratutako agiriak borondatezko epearen azken egunean kargatuko dira zergapekoak emandako kontu korrontean.**

**28. artikulua: Jendaurrean jartzea.**



Usurbilgo Udala



-Lehenengo puntuan:

Esaten du:

“Egutegi fiskalaren berri edukitzean (...)”

Esan beharko luke:

“Egutegi fiskala onartzean (...)”

## 5. Sekzioa. Atzeratzeak eta zatikapenak.

104. bis artikulua sortu (berria):

### 104.bis artikulua: Bermetik salbuestea.

1. Zilegi izango da bermea eratzeko obligaziotik erabat edo zati batean salbuestea ondoko kasuetan:

a) Eskatzailea lurralde mailako herri administrazioa edo bere organismo autonomoetako bat denean, beti.

b) Zatikatzeko eskatzen diren zorrak 3.000 eurotik gorakoak ez direnean.

c) Ordainketa zatikatzeko eskaerek hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoak 12.000 euroko kopurua gainditzen ez badu eta zatikatzeko epea urtebetekoa baino handiagoa ez bada.

d) Ordainketa zatikatzeko eskaerek hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoak 150.000 euroko kopurua gainditzen ez badu, zatikatzeko epea bi urtetik gorakoa ez bada, eta, zatikapena onartu aurretik, eskatzaileak, gutxienez, zatikatu behar den zorraren %20 ordaintzen badu.

e) Ordainketa zatikatzeko eskaerek hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoak 150.000 euroko kopurua gainditzen badu, zatikatzeko epea bi urtetik gorakoa ez bada, eta, zatikapena onartu aurretik, eskatzaileak -gutxienez 30.000 euro ordaintzen baditu zatikatu beharreko zorra 150.000 eurotik gorakoa izan ez dadin.

2. Aurreko puntuko b), c), d) eta e) letretan aipatutako zenbatekoak zordun bakoitzarengatik eta bere zor guztiengatik aplikatuko dira.

Ogasun Batzordeak, 2014ko urriaren 6ko ez-ohiko bileran, gehiengoz, Alaitz Aizpurua, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Jose Ramon Furundarena eta Luis Mari Ormaetxearen aldeko botoekin, eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

**LEHENA.** - 2015eko Zerga-Ordenantzak behin-behingo onartzea.





Usurbilgo Udala



**BIGARRENA.-** Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.-** Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

**LAUGARRENA.-** Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Abstentzioa: Ricardo Crespo Rubio

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

Alkateak adierazi du ezohiko hirigintza batzorde bat egingo dutela eta denen artean data eta ordua zehaztu dute. Halaber, pertsonaleko batzordea ere izango dela aurreratu du.

**Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.**